

**2008KO AZAROAREN 18AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea
ARETOA: Batzar Aretoa
EGUNA: Hemezortzia
HILABETEA: Azaroa
URTEA: Bi mila eta zortzi
HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia
BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa
DEIALDIA: Lehena
OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)
MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza
BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Fernando Boada González
Jon Kortaberria Lasa
Begoña Lasa Royuela
Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2008ko irailaren 16ko eta urriaren 14ko akten berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dituzte, beraiekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK ESLEITZEA:

a.- 8. Sektoreko (hegoaldeko lursaila) urbanizazio-obrak esleitzea.

2008ko azaroaren 11n Kontratazio Mahaiak egindako proposamena kontutan izanda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“AURREKARIAK

I.- Goberu Batzordeak 2008ko uztailaren 29ko datarekin egindako ohiko bileran, ondorengo erabakia hartu zuen:

Lehenik. 8. Sektoreko (hegoaldeko lursaila) urbanizazio obrak, prozedura irekiaren bitartez kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz.

Bigarren.- Aipatutako obrak lehiaketa bidez kontratatzeko deialdi publikoa egitea, lizitazio prezioa, 388.954,86 €koa, BEZ kanpo izanik eta egikaritze-epea 6 hilabetekoa.

II.- Deialdia 2008ko abuztuaren 22an argitaratu zen eta aurkeztutako zortzi plikak irekitzeko ekintza berriz, 2008ko irailaren 23an izan zen.

Aurkeztutako eskaintza ekonomiko eta dokumentazioa aztertu ondoren, eskaintzak puntuatu egin dira, baldintza plegu administratiboko 20. artikuluan aurreikusitako esleipen-irizpideen arabera.

1. Prezioa/Precio.....	0 - 70 p.
2. Obraren azterketa/Estudio de la obra. Lanen Egitaraua/Programa de trabajos.	0 - 10 p.
3. Epeak: partzialak eta guztira/Plazos parciales y total.....	0 - 10 p.
4. Obrari atxikitutako pertsonala eta asistentzia teknikoak/Personal asignado a la obra y asistencias técnicas.....	0 - 5 p.
5. Makinaria eta obrei atxikitutako baliabide laguntzaileak/Maquinaria y medios auxiliares adscritos a las obras.....	0 - 5 p.

Osotasunean, ekonomiko ikuspuntutik hoberenak izan diren hiru eskaintza bakarrik baloratu dira, izan ere, puntuazioan preziogatik jarraitzen dutenak ez lukete hiru horiek gaindituko, naiz eta beste esleipen-irizpideetan puntu handienak lortu.

Horren ondorioz, lortutako emaitza ondorengoa izan da:

ESTUDIO DE VALORACION OFERTAS URBANIZACION SECTOR 8 (SUR)														
LICITACION		OFERTANTES						PUNTUACION						
Importe	Plazo	CONTRATISTA	Propuesta Económica	Plazo	Propuesta Media	Baja Media	Limites Baja	Baja Oferta	Precio	Estudio Obra	Plazos	Personal Asignado	Maquinaria	TOTAL
388.954,86	6 MESES	CNES URBYCOLAN	321.709,64	3,5	353.097,20	9,22	0 - 19,22	17,29	70,00	9,00	8,333	5	5	97,33
		CNES. FRESNEDA	328.751,31	5				15,48	65,47	7,00	3,333	3	5	83,81
		AZYSA OBRAS Y PROYEC	340.340,00	3,5				12,50	58,03	10,00	8,333	5	5	86,36
		CAMPEZO - ELEKTRA	346.618,42	3				10,88	53,99	10				63,99
		KOROSTEL - ALTUNA Y UR	348.663,36	4,5				10,36	52,68	5				57,68
		CNES AMENABAR	368.784,54	4				5,19	39,74	6,667				46,41
		CODOSA - IRUÑA	381.969,21	3				1,80	31,27	10				41,27
		COPRISA - CNES PEDRI IP	387.941,14	3,2				0,26	27,43	9,333				36,76
				2.824.777,62										

Esleipen-irizpide desberdinen azterketa, baloratu diren eskaintzeekiko ondorengoa da:

OBRAREN AZTERKETA (10 puntu)

Hiru lizitatuzaileek orokorrean azterketa zuzena aurkezten dute. AZYSA enpresak GANNT eta PERT izeneko diagramak aurkezten ditu. Beste bi lizitatuzaileek aldiiz, bakarrik GANNT izeneko diagrama aurkezten dute. Beraz, hor guztia nahiz bakoitzak garatu duena, kontuan izanda, ondorengo puntuazioa ematen da:

- AZYSA OBRAS Y PROYECTOS - AZYSA GIPUZKOA: 10 puntu.

- URBYOLAN: 9 puntu.
- CONSTRUCCIONES FRESNEDA, S.L.
- : 7 puntu.

EPEAK PARTZIALAK ETA EPEA GUZTIRA (10 puntu)

Atal honetan eskaintzak honela puntuatu dira: obrak egiteko denbora gutxiena behar duenari gehiengo puntuazioa eman zaio.

ATXIKITUTAKO PERTSONALA ETA ASISTENTZIA TEKNIKOAK (5 puntu)

Llitzatzaile guztiak obrak egiteko nahiko pertsonala aurkezten dute, baina AZYSA eta URBYCOLAN enpresak pertsonalaren dedikazioa zehazten dute eta FRESNEDAK ez du ez dedikaziorik ezta beraien curriculumare ere aurkezten. Horren ondorioz, honako puntu hauek ematen dira:

- AZYSA OBRAS Y PROYECTOS - AZYSA GIPUZKOA: 5 puntu.
- URBYCOLAN : 5 puntu.
- EXCAVACIONES FRESNEDA SL: 3 puntu.

MAKINARIA ETA OBRARI ATXIKITUTAKO BALIABIDE LAGUNTZAILEAK (5 puntu)

- Hiru enpresak eskaintza zuzena aurkezten dute, makinaria eta obrari atxikitutako baliabide laguntzailei buruz. Beraz, denei gehienezko 5 puntu ematen zaizkie.

Horren ondorioz, Kontratazio-mahiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. 8. Sektoreko (hegoaldeko lursaila) urbanizazio obrak, **URBYCOLAN** enpresaren alde behin-behineko esleipena egitea, **321.709,64 €ko prezioan, BEZ kanpo.** Egikaritze epea, berak egindako eskaintzaren arabera, 3,5 hilabetekoa izango da.

Bigarren. Adjudikaziodunak **16.085,49 €ko** behin betiko fidantza aurkezten duenean, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako eta kontratua sinatzeko Alkateari baimena ematen zaio. Behin betiko fidantza, behin-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hamabost eguneko epean aurkeztuko da.”

b.- Igartza Oletako espaloiak birmoldatzeko obrak esleitzea (II fasea)

Esleipen-irizpide desberdinen azterketa, baloratu diren eskaintzeekiko ondorengo da:

OBRAREN AZTERKETA (10 puntu)

Bi lizitatzailleek orokorrean azterketa zuzena aurkezten dute, baina URBYCOLAN enpresak aurkezten duena zehatzagoa da. Beraz, ondorengo puntuazioa ematen da:

- CONSTRUCCIONES FRESNEDA: 8
- URBYCOLAN: 10

EPEAK PARTZIALAK ETA EPEA GUZTIRA (10 puntu)

Atal honetan eskaintzak honela puntuatu dira: obrak egiteko denbora gutxiena behar duenari gehiengo puntuazioa eman zaio.

ATXIKITUTAKO PERTSONALA ETA ASISTENTZIA TEKNIKOAK (5 puntu)

Bi lizitatzailleek obrak egiteko nahiko pertsonala aurkezten dute, baina URBYCOLAN enpresak pertsonal teknikoaren dedikazioa zehazten du eta aldiz, FRESNEDAK ez du pertsonal horren dedikaziorik aurkezten. Horren ondorioz, honako puntu hauek ematen dira:

- URBYCOLAN : 5 puntu.
- EXCAVACIONES FRESNEDA SL: 3 puntu.

MAKINARIA ETA OBRARI ATXIKITUTAKO BALIABIDE LAGUNTZAILEAK (5 puntu)

Bi enpresak eskaintza zuzena aurkezten dute, makinaria eta obrari atxikitutako baliabide laguntzailei buruz. Beraz, biei gehienezko 5 puntu ematen zaizkie.

Horren ondorioz, Kontratazio-mahiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Igartza Oleta kalean espaloiak berritzeko obrak (II fasea), **URBYCOLAN, S.L.**, enpresaren alde behin-behineko esleipena egitea,

241.182,26 €ko prezioan, BEZ barne. Egikaritze epea, berak egindako eskaintzaren arabera, 2 hilabetekoa izango da.

Bigarren. Adjudikaziodunak **12.059,11 €ko** behin betiko fidantza aurkezten duenean, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako eta kontratua sinatzeko Alkateari baimena ematen zaio. Behin betiko fidantza, behi-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hamabost eguneko epean aurkeztuko da.”

3.- INFORMAZIOA

Alkate jaunak gai hauei buruz ondorengo informazioa eman du:

- Abenduan egingo den euskal liburuaren azoka.
- Euskara eta kultura koordinatzaile eta gazteria teknikari lanpostuen hautaketa-prozesuak.
- Beasaindar baten azken atxiloketa.
- Adin txikiekiko egindako erasoak.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera goizeko bederatziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.